



2025-2026 KURTSO HASIERAKO EKIMENA eta ELKARTASUN EKIMEN NAZIONALA

***Hiltzen dituzten horiek
Gure haurrak ere badira.***

Kaixo, lagunok!

Genozidioak darrai.

Hitzik gabe geratzen ari gara eta argi dugu Euskal Herriko hezkuntza komunitateak Palestinan egiten ari direna bere erraietan sentitzen duela. Mina egunerokoa bihurtu da. Telebista eta mugikorren bidez ikusten dugunaren aurrean ezintasun sakona sentitzen dugu. Aski da! oihukatu nahi dugu. Horregatik hain zuzen ere, ez da besoak jaisteko unea, saiakerak biderkatu behar ditugu, oihukatzen jarraitu behar dugu. Palestinarrek egunero pairatzen dutenaren aurrean, haien erresilientzia eta erresistentzia izugarria da. Haiek ez badute amore ematen, nola etsiko dugu guk?

Ikasturte berri honetan indartsu aterako gara berriz ere, ikastetxeko patio eta kaletara. Eraildako 20.000tik gorako ume horien memorian eta egunero genozidioa pairatzen ari direnak ahaztu barik. Horretarako proposamen indartsu hau bidaltzen dizuegu jarraian:

ZAPATEN BILKETA:

Zertan datza?: Ikastetxeko sarreretan (zuek ikus-adostu leku egokiena) zapatak biltzeko ontziak jarriko ditugu eta gure Ikastetxeko komunitateari, Guraso Elkarte edo erabil ohi duzuen bideetatik, dei orokor bat egingo diogu etxetik zapatak eramateko. Horretarako mezu proposamen bat bidaltzen dizuegu:

“Familia agurgarriak:

*Ikasturte hasiera honetan **Gure Haurrak ere Badira**-k deituta, EHko ikastetxe guztietan egingo den Palestinaren aldeko ekimen bat prestatzen gabiltza. Horretarako, ehunka zapata zahar behar ditugu eta etxean jada erabiltzen ez dituzuen horiek ekartzeko deia egiten dizuegu. **Pareak bere sokarekin edo brida txiki batzuekin lotuak ekarri, mesedez.** Ikastetxeko XXXXXX-n (sarrera, hall, biltegia...) jasoko ditugu. Aurrerantzean, zapata guzti hauek, Gure haurrak ere Badira ekimenetan erabili ahal izango ditugu.*

Aldez aurretik, mila esker,

Palestinako umeak gure haurrak ere badira!”

Noiz?: Komunikazio hau jasotzen duzuen unetik eta urriaren 18 arte.

Eta gero zer?: Zapata hauek bi helburu nagusia beteko dituzte:

- 1- **Urriaren 16an Ikastetxe guztietan** ume palestinarren aldeko ekimenak egiteko euskarri gisa baliatuko ditugu. Patioetan burutuko gurek genueken bilkuretan zapatak zabaldu edo haiekin multzo handi bat egin, ikasleek eskutan izan edo altxatuko ditugu. Ekimen honen argazkiak egingo genituzke, pankarta batekin: **“GURE HAUR PALESTINARREN DEFENTSAN Larunbatean DENOK BILBORA!”** Lelorekin. Argazkiak gure betiko e-mailera bidali eta gure inguruetan zabalduko

ditugu.

- 2- Zapatak bildu eta Urriaren 25eko larunbatean Bilbora eramango ditugu. Hau egiteko, aurrerago beste komunikazio bat bidaliko dizuegu, zehatz mehatz nola egingo dugun azalduz. Hala ere, ahal baduzue, joan pentsatzen ikastetxe bakoitzean bi pertsona edo taldetxo bat honetaz arduratuko liratekeenak. Jakin ezazue, mobilizazio honetarako bolondresak biltzeko deia egingo dugula.

URRIAREN 25eko ELKARTASUN EKIMEN NAZIONALA:

Noiz?: URRIAREN 25ean, egun osoan zehar.

Non?: BILBOn.


Zer: Gure Haurrak ere Badira-k Bilbon Israelek eraildako haur palestinarrei omenaldi nazional batera deitu nahi du. Egunean zehar hainbat ekintza burutuko ditugu eta arratsaldean ekimen nagusia izango da.

- Eguerdiko 12:00etan Bilboko Alde Zaharreko Zirika Gunean (erronda kalean) **Palestinaren historiaren inguruko hitzaldia** izango da.
- Eguerdiko 12:00etan **Askatasun Doinua Ipuin-kontaketa** kontaketa eta salmenta solidarioa Alde Zaharrean (lekua zehazteko).
- 13etan **pailazoen kalejira**.
- 17etan **Ekitaldi nagusia** burutuko dugu. Ume palestinarrei izango den omenaldi honen haria Gure haurrak ere Badira-k hasieratik erabili dituen zapaten irudia izango da. Euskal Herri osoko ikastetxetan bilduko ditugun milaka umeen zapata Bilbora eramango ditu. Irudi hau lau haizetara eta Palestinaraino zabalduko dugu.

Manifestazio batek Bilbiko kaleak zeharkatuko ditu eta amaieran **hainbat ekitaldi** izango dira: **pailazoen emanaldi bat burutuko dute** eta hainbat **artistek abesti** batzuk abestuko dituzte. Gure Haurrak ere Badiraren **kamiseten salmenta solidarioa** izango da. Egun osoan zehar bildutako **dirua Palestinara** bideratuko dugu.

Esan bezala, manifestazio hau burutzeko beharko dituzuen datu guztiekin beste komunikazio bat jasoko duzue.

OSTEGUNERO, MOBILIZAZIO EGUNA:



Zertan datza?:

1. Nafarroako eskola batzuetan martxan jarri zuten ekimenarekin bat eginez, sindikatu guztien babesarekin, hezkuntza komunitate bildu eta ostegunero elkartasun keinuak egitean datza. Ikastetxe guztietako patio edo sarreretan, leku bakoitzean egokiena den orduan eta eran kontzentrazioak edo beste motatako ekimenak egitea proposatzen dizuegu.
2. Gure Haurrak ere Badira-k aterako dituen kamisetak komunitatean ahalik eta gehien zabaldu eta hauek ostegunero jantzeko deia egiten dugu (irakasle, familia eta ikasle).

Noiz?: Irailaren 25etik aurrera ostegunero.

Non?: Ikastetxe guztietako patio edo sarreretan, egokien ikusten duzuen leku eta orduan.

KAMISETA ELKARTASUN KEINU GISA :

Zertan datza?: Gure Haurrak ere Badira kamiseta bat aterako dugu. Kamiseta hau Palestinako haurrekiko elkartasun sinbolo bihurtu nahi dugu, bereziki hezkuntza komunitatean.

Ostegunero izango ditugun elkartasun egunetan denok janzteko deia egiten dugu.

Nola eskuratu?: “Denda on line” delako bat zabalduko dugu (<https://shre.ink/SLOg>). Edonork erosi ahalko du 15 euroan helduena eta 10 euroan haurrena. Baina taldeka erostera animatzen zaituztegu. Ikastetxe guztietan zerrendak egiten eta batera eskatuz. Horretarako zuen komunikazio eta sareak erabili ditzakezue ikastetxez ikastetxe.

Urriaren 25eko **Ekimen Nazionalean** ere salgai egongo dira eta esan bezala, irabaziak Palestinara bideratuko ditugu.

Mila esker arlo guztietan Palestinaren alde eta bereziki palestinar haurren alde egiten ari zareten lanagatik.

**Gure haurrak ere badirelako, jarrai dezala elkartasun uholdeak!
Genozidioa gelditu!**



2025-2026 INICIATIVA DE INICIO DE CURSO y ACTO NACIONAL DE SOLIDARIDAD

***Hiltzen dituzten horiek
Gure haurrak ere badira.***

Kaixo amigxs!

El genocidio continúa.

Nos estamos quedando sin palabras y tenemos claro que la comunidad educativa de Euskal Herria siente en sus entrañas lo que está sucediendo en Palestina. El dolor se ha convertido en algo cotidiano. Ante lo que vemos en la televisión y en los móviles sentimos una profunda impotencia. Queremos gritar ¡basta ya!. No es momento de bajar los brazos, debemos multiplicar los esfuerzos, debemos seguir gritando. Frente a lo que sufren cada día los y las palestinas, frente a su resiliencia y resistencia ¿cómo vamos a rendirnos nosotras?

En este nuevo curso saldremos de nuevo con fuerza a los patios de los centros escolares y a las calles. En memoria de esas más de 20.000 niñas y niños asesinados y recordando a quienes sufren cada día el genocidio. Para ello os enviamos la siguiente propuesta:

RECOGIDA DE ZAPATOS

¿En qué consiste? En colocar contenedores para recoger zapatos en la entrada de los centros escolares (vosotros acordar el lugar más adecuado) y hacer una llamada general a vuestra comunidad educativa, mediante las Asociación de Madres y Padres u otros canales habituales, para que lleven zapatos desde casa. Para ello os enviamos un mensaje de propuesta:

“Queridas familias:

*En este inicio de curso, convocados por Gure Haurrak ere Badira, estamos preparando una iniciativa a favor de Palestina que se realizará en todos los centros escolares de Euskal Herria. Para ello, necesitamos cientos de zapatos viejos y hacemos un llamamiento para que traigáis aquellos que ya no utilizéis en casa. Por favor, **traedlos por pares atados con sus cordones o con unas pequeñas bridas**. Los recogeremos en XXXX (entrada, hall, almacén...) del centro escolar .*

De antemano, muchas gracias,

¡Las y los niños palestinos también son nuestrxs niñxs!”

EL 25 DE OCTUBRE, ACTO NACIONAL DE SOLIDARIDAD:

¿Cuándo? El 25 de octubre, durante todo el día.

¿Dónde? En Bilbao.

¿En que consiste? Gure Haurrak ere Badira queremos llevar a cabo un homenaje nacional a las y los niños palestinos asesinados por Israel, el 25 de octubre en Bilbao.

- A las 12:00 en Zirika Gunea, en el Casco Viejo de Bilbo habrá una **charla sobre la historia de Palestina**.
- A las 12:00 en en el Casco Viejo de Bilbo (lugar por determinar), **cuentacuentos Askatasun Doinua** y venta solidaria del cuento.
- A la 13:00 **kalejira de payasos**.
- A las 17:00 realizaremos **el acto principal**. El hilo conductor de este homenaje será la imagen de los zapatos que Gure Haurrak ere Badira ha utilizado desde sus inicios. Llevaremos a Bilbao los miles de zapatos infantiles recogidos en los centros escolares de toda Euskal Herria. Queremos lanzar esta imagen a los cuatro vientos y la haremos llegar hasta Palestina.
- Una **manifestación** recorrerá las calles de Bilbao y al final habrá diferentes actos: los **payasos** realizarán **una actuación** y varios **artistas** cantarán algunas **canciones**.
- Habrá **venta solidaria de camisetas** de *Gure Haurrak ere Badira*.

Todo lo recaudado durante el día, lo vamos a mandar a Palestina.

Todo lo referido a este acto se os trasladara con detalle en una próxima comunicación, ya que este esfuerzo será un gran auzolan que necesitara de la ayuda de todas. Tanto para la recogida de zapatos, su traslado a Bilbo y ya os adelantamos que haremos un llamamiento a ser voluntarios el día 25.

LOS JUEVES, ELKARTASUN EGUNA.

¿En qué consiste?

Siguiendo la iniciativa puesta en marcha en algunos centros de Nafarroa y con el apoyo de todos los sindicatos, hacemos un llamamiento a reunir a la comunidad educativa y realizar gestos de solidaridad cada jueves. Proponemos que en los patios o entradas de todos los centros, en el momento y forma que mejor se adapten, se realicen concentraciones u otro tipo de iniciativas.

Hacemos un llamamiento a difundir lo más posible en la comunidad las camisetas que sacará *Gure Haurrak ere Badira* y a llevarlas todos los jueves (profesorado, familias y alumnado).

¿Cuándo? Desde el próximo jueves día 25 de septiembre, todos los jueves.

¿Dónde? En los patios o entradas de todos los centros, en el lugar y hora que veáis más conveniente.

Mandar fotos y videos de estos actos a nuestra dirección de e-mail.

CAMISETA COMO GESTO DE SOLIDARIDAD

¿En qué consiste? *Gure Haurrak ere Badira* sacará una camiseta. Queremos que esta camiseta se convierta en símbolo de solidaridad con las niñas y niños palestinos, especialmente en la comunidad educativa.

Hacemos un llamamiento a vestirla todos los jueves, en Elkartasun egunak.

¿Cómo conseguirla? Abriremos una “tienda online” (<https://shre.ink/SLOg>). Cualquiera podrá comprarla por 15 euros las de adultos y 10 euros las de niños. Pero os animamos a hacerlo en grupo: elaborando listas en los centros educativos y haciendo los pedidos conjuntamente. Para ello podéis usar vuestros canales de comunicación y redes entre centros.

También estarán a la venta en el Acto de Solidaridad Nacional del 25 de octubre.

Todo el dinero recaudado con las camisetas se destinará directamente a Palestina.

Muchas gracias por todo el trabajo que estáis haciendo en favor de Palestina y, en especial, de las y los niños palestinos.

**¡Porque también son nuestras niñas y niños, que siga la ola de solidaridad!
¡Detengamos el genocidio!**